


Lehen Hezkuntza 2.zikloa (8-10 urte):

Erakusketa girotura sartzen direnean, binaka jartzeko esango diegu eta bikote bakoitzari kolore jakin bateko orrialdeak emango dizkiegu eta baita boligrafoa edo arkatza. 5-10 minutu izango dituzte liburuetatik bueltatxo bat eman eta ikusten duten guztia apuntatzeko; deigarria egiten zaien guztia (idazleak, argitaletxeak, izenburuak, irudiak, irudien esanahia...).

Ondoren, kolore berdina duten bikoteak batuko dira eta horren arabera egingo dira taldeak (horia, urdina, berdea, gorria, laranja eta zuria).

Galdera-erantzunen jolasa taldeka:

- MAUD munstro beldurgarriak eta bere lagunek izugarrizko eguna ospatuko dute. Zeren inguruan izango da eguna? → **KIROLA (IZUGARRIZKO KIROL EGUNA)**
- Zein da usaindun liburuaren izenburua? → **BAT PAT: TOPAKETA EXTRALURTARRAK**
- Zeren bila dabilta Pirata Eskolako umeak? → **ALTXORRAREN BILA**
- Susaeta argitaletxeak hiru liburu harrigarri ditu, hiru animalia berezi lantzen ditu 3Dan. Zeintzuk dira animalia horiek? → **T-REX, ZOMORRO eta MARRAZO**
- Ada Goth-ek jaialdia antolatuko du bere urteguna ospatzeko. Baina zein izen jarrio dio bere jaialdi horri? → **ILARGI HILAREN JAIALDIA**
- BAT PATEk dio: "Txantxarik ez...". Norekin? → **TXANTXARIK EZ SAMURAIKIN**
- Bukatu izenburua: "Letra txarra daukat..." → **LETRA TXARRA DAUKAT, ETA ZER?**
- Zein da portada hau duen liburuaren izenburua?



→ **GARATXO OPERAZIOA**

- Liburu batean, zer dago edukiontzian? → **MUNSTRO BAT EDUKIONTZIAN**
- Idazle batek Txuntxurrun berdeko animalien kontakizunak kontakizunak dizkigu. Zein da idazlea? → **XABIER OLASO (TXUNTXURRUN BERDEKO ANIMALIEN KONTAKIZUNAK)**
- Nor dago oker? → **AITA OKER DAGO**
- Non daude frikiak? → **SUKALDEAN FRIKIAK**
- ZAKAR ALIENAK bilduman, zein animalia jartzen dute uzkertari bezala? → **ELEFANTE UZKERTIA**
- Hegazkin bat egin nahi duzula eta zein liburutan aurkitu dezakezu hegazkin hori egiteko pausuak? → **ZERUKO HEROIAK**
- "Liburu honetan, Euskal Herrian mendeetan zehar belaunaldiz belaunaldi igarotako kondairak topatuko dituzu. Umeei zuzendutako zazpi narrazio dira guztira; Basajaun, Olentzero, Mozolo, Galtzagorri edo sorginen istorio



ERAKUSKETA GIROTUAK 2014

harrigarriekin gozatu dezaten.” Zein da liburu honen izenburua? → *EUSKAL HERRIKO KONDAIRA ONENAK*

- “Iker handitzen ari den heinean, aitona txikitzen ari da. Hori esaten du amamak behintzat. Horregatik-edo, aitona erresidentziara eraman dute bizitzera. Etxekoak ezagutzen ez zituen plantak egiten hasi zenean erabaki zuten eramatea. Baina lkerrek badaki txantxetan ari dela...” Zein da liburu honen izenburua? → *NORA JOAN DA AITONA?*
- Aipatu Elkar argitaletxeko bi liburu. → *PRINTZESA TXOSONTZIA / MUNSTRO BAT EDUKIONTZIAN / NORA JOAN DA AITONA? / LETRA TXARRA DAUKAT, ETA ZER? / EZ DUT IRUDIMENIK, ETA ZER? / BI SAGU POLTSIKOAN / OIHANEKO EPAILEA / ZURE DENBORAREN TRUKE / NIRE AITAREN BOTAK*
- 4 argitaletxeren izenak idatzi → *ELKAR / IBAIZABAL / EREIN / DESCLÉE / MEZULARI / AIZKORRI / SUSAEATA...*